ASTEKARIA - 2007ko irailaren 14an - XII. urtea - Usurbil, 291. zenbakia

# Noaua !!

www.noaua.com



Aginagak omenadi beroa eskaini zien arraunlariei




## Erraustearen aurkakoak nagusitu dira

# San Markosko mankomunitatean


LIZARDI
LIBVRVDENDA
Liburuak, aldizkariak, musika, opariak, eskola materiala, testu liburuak, enkuadernazioak eta fax zerbitzua
Etxebeste kalea, 1
✆ 943 361 115


FUNERARIA GONZALEZ
Tel: 943.36.21.63
608.16.77.92 eta 660.38.86.52
USURBILGO EHORZTETXEA
Zerbitzu azkarra eta etengabea 24H.
Belatoki guztietan zerbitzuak.
Lekualdaketak, hilarriak, eskelak...
Ospitale zentru eta egoitzetan ere.
Seguru konpani guztiak
Muna lurra Kalea, 8


GU TA GUTAŔAK
bertso berriak eta lagun zaharrak
GU TA GUTAŔAK
Kontzertua
irailak 28 ostirala
22.30h
Sutegin
Sarrerak. Aldez aurretik erosita 10€ . (Sarrerak Txirristran eta Noaua!ko egoitzan salgai).
Egunean bertan: 12€ Noaua!ko bazkideek 8€ tan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik.

## Duela 10 urte izan zen !!

# Gatza, piperra... eta ozpina urez bustita

Ikasturte berriarekin batera, atal berri bat zabaldu dugu NOAUA!n. “Duela 10 urte” izeneko honetan, hemeroteka lana egingo dugu. Hamar urte egingo ditugu atzera eta NOAUA!n jasotako albiste, bitxikeria, gertaera... esanguratsuenak gogora ekarriko ditugu.

1997ko irailaren 19an, piperrak izan ziren NOAUA!ko azalaren protagonistak. Orduko uzta kaxkarra izan zela aipatzen genuen: “ekainaren hasieran izandako uholdeak eta udan egin duen eguraldi txarra izan dira Usurbilgo pipergileen oztopo nagusiak”.

Erreportajean, Joxe Pagola piper ekoizlearen hitzak hauek izan ziren: “azken hamar urteotan bildutako piper kopurua asko gutxitu da. Lehen piper ugari izaten genuen, erruz, orain berriz urtetik urtera gero eta gutxiago”.

Inaxio Muruak, duela hamar urte egindako erreportaje hartan, beste arrazoi bat ere aipatzen zuen: “orokorrean kaxkar samar biltzen da piperra. Badira ondo biltzen dutenak, baina biltzaile askoren lana ez da guk nahi genukeen bezain ona. Piperra neurri ertain batean dagoenean bildu behar da, ez handi ez txiki. Baina biltzaileek honi ez diote kasu handiegirik egiten”.

1997ko irailaren 19an plazaratu genuen alean ere, Agiña piperrak labelaren sorreraren berri eman zen.




Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Aurkibidea

JOXE DOMINGO AIZPURUA, KARTZELAN — 5. OR.
KRONISTAK KALEJIRAN — 6. OR.
3. ADINEKOAK ZAINTZEKO IKASTAROA — 8. OR.
SANTUENEKO FESTAK — 10. OR.
SAN MARKOS, ERRAUSTEAREN KONTRA — 12. OR.
DENBORAPASAK — 14. OR.
IZERDI PATSETAN — 15. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

# Zaharrak berri?

Hasi da ikasturte berria. Hedabideetako handi-mandiak datorren urtean egingo diren hauteskundeei begira ditugu. Antza, hori izango da ikasturtea baldintzatuko duen kontu nagusi eta bakarra. Baina izango da bestelako konturik. Izango ez da! Zaharrak berri, gainera.

Plaza handietako kontuek ia dena estaltzen duten arren, gurean, dema-plazaren bueltan, izango da bestelakorik. Zaharrak berri bihurtzeko abilezia berezia duen herrian bizi baikara.

Ale honetako azalean bildu duguna, esate baterako. Bitxia da hiri hondakinen eztabaidak hartu duen itxura. Erraustearen gaia zuzenean ala zeharka jarraitu duzuenok, ez didazue esango harrigarria ez denik. Duela urtebete, nekez irudikatzen genuen erretratua da. Ikasturte hasierako argazkia, ezbairik gabe.

Hiri hondakinen inguruko eztabaida piztu zenetik hona, asko izan dira Imanol Azpirozek eskaini dituen prentsaurrekoak. Baina orain arte herri mugimenduen plazatik aritzen zen hizketan. Baita Zubietako Herri Batzarraren izenean ere. Eta normalean, era honetako prentsaurrekoak ez dira hedabide handien oso begikoak. Orain, ordea, San Markosko mankomunitateko lehendakariorde izendatu dutenetik, kapitaleko "hitzontzien" aurrean aritzeko aukera izango du.

Argazkia bezain bitxia da San Markosko mankomunitateak izan duen bilakaera. 2003tik 2007rako legealdian, Alderdiaren Legeak baliatutako egoeraren ondorioz, erraustearen aldekoak izan dira nagusi San Markosen. Baina legealdi berriak aire berriak ekarri ditu eta, orain, erraustearen aurkakoak dira mankomunitatea zuzenduko dutenak. EB eta EAE-ANVren arteko akordioa argazki honetan islatu da.

Baina argazkiak hori dira, irudi hutsak. Transatlantikoaren ibilera aldatzen nahikoa lan izango dute agintari berriek. Azken urteotan ezarri den ildoari aurre egitea ez da erraza izango. Pentsa, askok egintzat ematen dute errauste-planta. Atzera biderik ez duen proiektua dela diote. Are gehiago, Zubietan egingo dela ziurtatu dute behin baino gehiagotan; erabakia behin betikoa dela adieraziz.

Baina errekurtsoak ere jarri dira. Alegazio ugari. Plataformak ere lanean jarraitzen dute. Ez hori bakarrik, errauste-sistema geldiarazteko aro berri bat zabaldu delakoan daude. Ez dugu ahaztu behar erraustearen aurka dauden indarrak herri borondateak hala erabakita iritsi direla San Markosko zuzendaritza batzordera.

Arrotza zitzaien plaza eskuratu dute, San Markoskoa. Baina plaza erabakiorrena Donostiako erdigunean da, Gipuzkoa Plazan. Hor ere, Foru Aldundiaren egoitzan hain zuzen, aldaketak izan dira. Gonzalez Txabarriren tokia hartu du Markel Olanok. Alderdi berekoak dira biak, bai. Baina agintarien atzean pertsonak daude. Hala esan zuen Imanol Azpirozek San Markosko egoitzan eskainitako prentsaurrekoan. Gonzalez Txabarrik bere jarrera argi azaldu zuen. Markel Olanorena ikusteke dago. Orduan jakingo dugu zaharrak berri diren, edo berriek zaharrak atzean utziko dituzten.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - **Imanol Ubeda** - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

## Ika-mika!

# Mendekua eta krudelkeria

Egia esateko, 2006ko martxoan Laurence Le Vert Parisko epaile sonatuak Joxe Domingo Aizpurua, bere gaixotasuna tratatu zezan, behin behineko askatasunean jarriko zuela jakin genuenean, hasieran ez genuen sinetsi ere. Urteetan estatu frantseseko agintari eta epaileek, gure senide presoekin izandako jarrera ez-gizatiarra ikusita horrelako erabakirik ez genuen, ez, espero.

Urte eta erdi eskas egin ditu Joxe Domingok kanpoan gaixotasun larriari aurre eginez bere lagun eta familiaren babesarekin. Denbora horretan epaiketa atzeratu egin diete. Orain, ordea, erabat osatua ez dagoen arren, epaitzea erabaki dute eta di-da batean, epaia eman, bertan atxilotu eta espetxeratu egin dute Fleury Mérogis Paris inguruko kartzelan.

Oraingoan ezin esan dezakegu harriturik gaudenik. Lehengo lepotik burua. Zer beharra zuten susperraldia eten eta berehala epaitzeko? Hori al da bere burua giza-eskubideen kabitzat hartzen duen estatu baten handitasuna?

Beldur gara espetxean eritasunari irabazitako eremua murriztuko ez ote zaion, hango bizi-baldintzak ez baitira egokiak nork bere burua zaintzeko. Estatu frantsesak berriro erakutsi du bere benetako aurpegia. Mendekuan eta krudelkerian oinarritutako jarrera horrek argi asko utzi du, hamaika bider goraipatzen duten "grandeur" demokratiko hori hitz hutsala besterik ez dela.

Joxe Domingo etxera! Preso eta Iheslariak etxera!

**Usurbilgo Etxerat**

# Joxe Domingo Aizpurua, berriz ere kartzelan

**Jose Domingo Aizpurua espetxean da. Agindu hori eman zuen Parisko 14. Auzitegi Bereziak. Usurbilgo presoari egin beharreko epaiketa bi aldiz atzeratu zuten, gaixotasun larri bat duelako. Lehengo astean, ordea, bere osasun egoera hobea dela argudiatuz, epaitegira deitu zuten. Sei urteko espetxe zigorra jarri zioten Joxe Domingo Aizpuruari, "helburu terroristadun gaizkile taldeko kide" izatea leporatuta, eta epaiketa amaitu bezain pronto eraman zuten preso, eskuburdinak jarrita. Manifestazio baten bidez, usurbildarraren espetxeratzea salatu zuten hainbat herritarrek.**



GAIXOTASUN LARRI BATEN ONDORIOZ, 2006KO MARTXOAN ATERA ZUTEN ESPETXETIK. LEHENGO ASTEAN, 6 URTEKO ZIGORRA EZARRI ZION EPAILEAK.

2006ko martxoan libre utzi zuten Joxe Domingo Aizpurua. Hiru urte lehenago sartu zuten kartzelan. Baina preso zutela gaixotasun larria atzeman zioten. Horregatik askatu zuten iaz. Gaixotasun hori dela medio, epaiketa bitan atzeratu ahal izan zuen. Baina azkenaldian bere osasun egoerak hobera egin zuela argudiatuz, lehengo astean egin zioten epaiketa.

## Sei urteko kartzela zigorra

Aizpuruak ETAn parte hartu izan duela aitortu zuen bere abokatuak, baina orain beste bide bat hartu duela nabarmendu zuen: "Horregatik dago hemen eta ez du ihes egin". Auzipetuaren osasun egoera "ahula" kontuan hartzeko eskatu zion Joxe Domingo Aizpuruaren abokatuak auzitegiari.

Hala ere, sei urteko zigorra jarri zioten. Dena den, lau urteko zigorra bete eta gero, behin behineko askatasuna eskura dezake Aizpuruak. Lau horietatik hiru aurretik beteak dituenez, urtebete geratuko litzaioke.

Espetxe zigorra bete ondoren, Frantzian egoteko debekua ere jarri dio tribunalak Aizpuruari.

1994an Frantzian beste espetxe zigor bat bete ondoren Espainiaren esku utzi zutenean Guardia Zibilak torturatu egin zuela salatu zuen Aizpuruak.

## Espetxeratzea salatzeko manifestazioa egin zen ostiralean

Pasa den ostegunetik, espetxean da Joxe Domingo Aizpurua, *Pitxas* ezizenez ere ezaguna den usurbildarra. Sei urteko zigorra ezarri dio epaileak baina dagoeneko hiru urte beteak ditu. Gaixotasun larria medio atera zen kalera Joxe Domingo Aizpurua. Gaixo jarraitzen du oraindik baina, hala ere, espetxera eraman zuten aurreko ostegunean.

Kartzelatik atera eta gero, Frantziatik kanporatzeko agindua eman du epaileak. Espetxeratzea salatzeko 150 lagun bildu ziren lehengo ostiralean.




150 LAGUN BILDU ZIREN AIZPURUAREN ESPETXERATZEA SALATZEKO ANTOLATU ZEN MANIFESTAZIOAN.

ATXEGALDE

JONE EIZMENDI

## Zorionak eta aurrera!!



Atxegaldeko auzo honetan jai mundialak izan ditugu aurten. Urte asko pasa dira jaiak ospatzeari utzi zitzaionetik. Garai batean auzo elkarteak antolatuta ospatu ohi ziren, eta denok dakigun bezala Kontxa arduratzen zen gehienbat ume edo gaztetxoak antzerkirako edo disfrazetarako prestatzeaz. Azkenerako hitzik egin ezinik geratzen zen eztarria itxi-itxi eginda.

Geroztik urte batzuk pasatu dira jaiak ospatu gabe, baina orduan umeak zirenak orain gazte jator eta helduak dira. Nik uste beti izan dutela hutsune bat jaiak ez egitean. Hori dela eta, aurtengoan bilera batzuen ondoren gogor ekin diote lanari. Baita asmatu ere. Bejondeizuela! Izan ere, jende ugari ibili baita egun horietan.

Ostiralean jaien hasiera, txupinazoa eta buruhandiak. Gauean bertako taldeak gehienbat. Ez zegoen burrunda eta musika faltarik. Beste batzuk lanean jendeari zerbitzen, baina denak pozik.

Larunbatean umeen gozamenerako jokoak, txokolatada eta abar. Gauean bertso afari arrakastatsua eta ondoren nahiko musika.




Igandean zer esanik ez; pintxo goxo ugari sagardoarekin eta arratsaldean patata tortila lehiaketa eta helduentzako dantzaldia. Umore pixka batekin ondo pasatzeko aukera. Azkenik, jaien amaieran, a ze sorpresa! "Suziriak" Donostiako Aste Nagusian bezala! Izugarrizko suziri pila. Amaiera ederra eman zioten jaiei. Esker mila denoi. Ea aurrerantzean ere horrela jarraitzen dugun.

SANTUENEA

ALEX TELLO

## EZtaBAIdan



EZ (hitza) esaten aspaldi ikasi nuen. Gaurdanik, batzuetan EZetza emateak enbarazu egiten dit, kosta egiten zait EZ esatea. EZEZkoak ateak ixten dituela iruditzen zait eta BAIEZkoak aldiz, ireki. Erantzun EZak EZ du balio, EZ ere EZBAIak (…).

Besteei formulazioaren ardura utziaz, aurrerantzean EZ eta BAI bidez komunikatzen banaiz, guztiei erantzun zehatzarekin mintzatuko natzaie:

Zer iruditzen Santueneako jaiak? (…) Eta, euria egiten badu? (…) Lokala, ez da oso handia baina primerakoa da gero, herritarrok zer erabilpen eman diezaiokegu? (…) Bestela, nola ikusten duzu herria? (…) Etxebizitzak? (…) Noaua!!? (…) Bestean, Sutegin, zer dago? (…) Antzokiko eserlekuak zenbakitzeaz, zer deritzozu? (…) Zelan, Antzerkilari gisa? (…) Nola dihoakizu bizitza? (…) Pentsatzen duzuna esango bazenu? (…) Pentsatzen duzuna esateak zertarako balio du? (…)

Tira, hitz egiten ikasi nuenez, hitzak josiz erantzunaren bidetik saiatuko naiz. Giltza zehaztasunean izango da. Ala, zuzentasunean agian? Argitasunean? Enbarazurik edo inolako trabarik gabe, aske elkar ulertzen hasten (eta heltzen bagara), solasean nahiz EZtaBAIdan primeran moldatu gaitezke EZBAIrik gabe.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Berriak munduan



Hemen gara, berriz ere. Zer moduzkoa joan da uda? Jakin al dugu euriteari eta ekaitzei aurre egiten... non geratu da NASAren aurrikuspena, berebiziko beroaldia jasango genuela esaten zuena? Erriberako laborariak bai asmatu!

Aldaketa klimatikoa entzunda aldaketa horrek tenperaturaren igoerari eragiten diola datorkit lehenbizi burura; baina abuztuan ikasi dut nire pentsamenduaren ordena aldatu beharrean naizela; izan ere, aspaldian egindako uden berotasunik ez baitugu izan...eta barazki guztiak atzeratu dira.

Eta Ameriketan barazkiei atzeratzeko aukerarik ere eman ez dietenak ez dakit zenbat izen desberdineko hurakanak izan dira. Indartsuak, bortitzak eta suntsitzaileak. Eta barazkiekin soilik balitz gaitz erdi, horiek jan gabe geratuko zirenak gaur ez daudelako han, tamalez.

Lurra berotzeak dakartzan –eta denok ezagutzen ditugu– ondorio kaltegarriak ez badira, Naturak hartzen du beregain gu zigortzeko eskubidea; modu batera edo bestera. Lastima, gehienetan ezer gutxiren jabe eta ezer gabe uzten dituen lurraldeetan jotzea. Lehen ere katastrofeak ezagunak baziren ere, horren maiz bai? Oso berriak gara gizakiak munduaren historia garaile atera ahal izateko.

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 8 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Txokoalde eta Urdaiagako kronikak hurrengo batean bilduko ditugu.*

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

# Kontxako banderak gogoratuz



Kontxako aurtengo bandera Orio aldera joan zaigu, merezimendu osoz irabazita gainera. Oriotarrak zoriondu beharrean gaude.

Kontxako egun handiaren bezperan Aginagan ospatu genuen gure herri txiki honek ere baduela bere partea Donostiako estropaden historian. 1957an Aginagak irabazi zuen Kontxako lehenengo bandera. Bigarrena, 1960an irabaziko zuen.

Aitortu behar da txalupa hartan zihoazen guztiak ez zirela Aginagakoak, hori da egia. Garai hartan aginagatarrentzako nahiko opari izaten omen zen Usurbilgo traineruari irabaztea, hala esaten zen bromatan. Dudarik gabe, Donostiako bandera irabaztea sekulako marka da beti edozein herrirentzako, eta askoz gehiago Aginaga bezalako batentzako.

50 urte pasa eta egun haren oroimenezko eguna ospatzeko benetako bazkari eta omenaldi ederrak antolatu zizkiguten Aginagako jai batzordekoek. Ia 400 pertsona bildu ginen herriko frontoian, ez da marka txarra. Traineru historiko hartan partaide izan zirenak edo beren senideak izan genituen oholtza gainean bazkal ondorenean.

Momentu hunkigarriak bizi izan ziren, malkoa atera arazten zutenak, omenaldikoan. Bazkari ezin hobea eta omenaldi xamurra. Txapela kendu behar dugu antolatzaileen aurrean. Han aritu ziren jo eta su lanean Albaro, Oskar, Ane, Aloña, Elixabete, Olatz, Leire, Alberto eta Joxemari Aldapa. Antolakizunetan aritu ziren Antxomolantxa eta Aginagako Soziedadea ere. Horiek eta lanean –otorduak prestatzen bezala zerbitzen eta abarretan- aritu ziren guztiek merezi dute aginagatar guztion esker ona.



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

# Ezkur urtea, “elur” urtea?



Eguraldi paregabea zegoela aprobetxatuaz, mendi aldera abiatu ginen iloba eta biok. Gustora, kontu-kontari, udan egin genuenaren berri elkarri emanaz, tipi-tapa bidean gora.

Abiatu ginenean betiko bidea egiteko asmotan nintzen baina hara non beste bide bat egiteko proposamena egiten didan ilobak. Proposamenari kasu eginez, ohiko bidea utzi eta bestean barna murgildu ginen.

“Izeba, zer dira lurrean dauden hauek? “-galdetu zidan bapatean. “Ezkurrak, ezkurrak dira!-erantzun nion. Gezurra badirudi ere, denbora asko zen neronek ere ikusten ez nituela eta nire burutapenek bapatean urteetan atzera egin zuten.

Oinez gora eta behera ibiltzen ginen garaietan txoko guztiak kontrolatzen genituen; non zeuden marrubi basatiak, txalburuak, gaztaina eta pikuak, ezkurrak, … Esploratzaile sentitzen ginen eta horretan ikusten nuen iloba ere.

Ezin utzi nezakeen momentu hura pasatzen utzi ilobari esaera zaharrak zer esaten zuen esan gabe: “ezkur urtea, elur urtea”. Bere mailan saiatu nintzen esaera haren esanahia adierazten baina nire baitan haratago joana nengoela ohartu nintzen; etekinez beteriko urtea edo ikasturtea ote aurrez aurre datorkiguna?

ZUBIETA

XABIER ARREGI

# Santioak



Pasa ziren Santio festak. Urruti geratu zaizkigu, oporrak tarteko. Jai Batzordekoek izan ezik, gainontzeko herritar gehienok ahaztuta edukiko ditugu herriko festak datorren udara arte.

Ez dira, ordea, hain erraz kitatzekoak festen kontuak. Merezi du atzera begiratzea eta hausnar egitea. Ondo joan al dira? Herritarrok ondo pasa al dugu? Zer moduz antolatu dira? Hutsune nabarmenak? Zer dago hobetzeko datorren urteari begira?

Horrelakoetan, festak hain handiak izanik, ez dago dena ondo-ondo egiterik. Baina, oro har, nire ustean, eta antzera entzun diet ingurukoei, bikainak izan dira aurtengoak. Hori esanda hasi nahi nuen kronikaren ikasturte berria.

Aitortu behar dut: programa ikusita, izutu egin nintzen. Ufa! gehiegizkoa iruditu zitzaidan egun eta, batez ere, gau batzuetako egitaraua. Baina, hara, ikusita nola erantzun duen antolakuntzak eta jendeak, ez daukat onetsi eta zoriondu besterik.

Iruditu zait, oro har, festa parte-hartzaileak izan direla, adin eta gustu guztietako herritarrentzat, eta, gainera, aspaldi ez bezalako giroa izan dugula. Horregatik guztiagatik, antolatzen ibili zareten guztioi: bejondeizuela!

# Hirugarren adinekoak zaintzeko ikastaroa irailaren 25ean hasiko da

**Mendikoik eta Usurbilgo udalak hirugarren adineko pertsonak zaintzeko ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa irailaren 25ean hasiko da eta Guraso Eskolako egoitzan emango dira ikastaroko klaseak.**

Irailaren 25ean hasiko da ikastaroa eta azaroaren 8an amaituko da. Astean bitan elkartuko dira, astearte eta ostegunetan, 15:30etik 19:30era.

Ikastaroa Guraso Eskolako gelan izango da (Zumarte Musika Eskolaren ondoko eraikinean).

### Izena emateko azken eguna, irailaren 20a

Ikastaroa egiteko 25 euroko kuota ordaindu beharko da. Ikastaroa bukatzean, ordea, dirua itzuliko zaie ikastaroa osatu duten guztiei.

Izen emateko azken eguna irailaren 20a izango da. Telefono zenbaki honetara deitu behar da:

687 865 658 (Saioa).



25 EUROKO KUOTA DU IKASTAROAK. BUKATZEAN, DIRUA ITZULIKO DA.

# Gure Pakeak osasunari buruzko hitzaldiak antolatu ditu

**Diabetesa eta arnasketa kontuei buruzko hitzaldi bana izango da Sutegin datorren irailaren 18 eta 19an. Jardunaldiok Gure Pakea Zahar Egoitzak eta Kutxak antolatu ditu.**

### Diabetesarekin elkar bizi

Xabier Susperregik "Diabetes kasuan izan beharreko ardura" izeneko hitzaldia eskainiko du, **datorren asteartean, hilak 18, arratsaldeko 18:00etan Sutegin.**

Gaixotasun guztiek dituzte haien sintomak. Diabetesak baita, bereak. Horiek ezagutarazi eta aipatutako eritasuna kronikoa denez, harekin nola elkar bizi ahalik eta modurik hoberenean, bizi-kalitateari neurri batean uko egin gabe, izango da hitzaldian Xabier Susperregik aipatuko duena.

### Arnasten ikasi

"Arnasten ikasiz, bizia luzatuko dugu", hala du izena **irailaren 19an asteazkenez** Xabier Susperregik eskainiko duen bigarren hitzaldiak. Hau ere, 18:00etatik aurrera.

Ondo arnasteak onura handia ekar diezaguke gure osasunerako. Baina jakin egin behar, zer den ondo arnastea, gaizki egiten duguna alboratzeko. Hitzaldi horren bidez, hori guztia eta gaiari lotutako beste hainbat xehetasun eskainiko dira.

Kutxak eta Gure Pakea Zahar Egoitzak antolatu dituzte bi hitzaldiak eta bietan sarrera doan izango da.

## Urrian hasiko da begirale ikastaroa

Urrian hasiko da eta ikasturte osoko iraupena izango du, datorren urteko maiatzean amaituko baita. Hori bai, izena emateko epea irailaren 10ean hasi eta irailaren 28an amaituko da. Informazio gehiago udaletxeko telefono zenbaki honetan jaso ahal izango da: 943 371 999.

## Katekesian izena emateko garaia da

Izena emateko bi egun jarri dira: irailaren 18a asteartea eta irailaren 19a asteazkena. Goizeko 10:00etatik 11:30era, eta arratsaldeko 17:00etatik 18:30era, parrokiko bulegoan.

Gurasoek eman behar dute haurraren izena. Ez da nahikoa aurreko urtean katekesira joan izana.

## Sorospen ikastaroa antolatu du DYAk

Irailaren 19an hasiko da sorosle eta lehen sorospen ikastaroa. Ikastaroaren iraupena hiru astekoa da, irailaren 19tik urriaren 9a bitarte. Informazio gehiago: 943 46 46 22.

## 1955ean jaiotakoen ospakizuna

Urriaren 20an bilduko dira. Hala dio NOAUA!ra igorri duten oharrak: "Oraintxe ia urtea igaro da azkenekoz elkartu ginenetik, eta badator berriro gure eguna. Antolatzen ari gara aurtengo bilera, eta zuek deika hasteko irrikitan gaude. Ohiturari jarraituz, urriko hirugarren larunbatean elkartuko gara, aurten, urriaren 20an. Azken egunera arte zain egon gabe, hasi deika aipatzen diren telefono zenbaki hauetara. Aurrerago zehaztuko dugu non bilduko garen. Telefonoak hauek dira: Karmele, 943 364 631 Rosario, 666 916 000"

## Zumarteko trikitilariak eta txistulariak

# Argentinako Euskal Astean arituko dira

**Urriko lehen astean, Euskal Aste Nazionala ospatuko dute jaioterritik oso urruti, Argentinako Rosario hirian bizi diren eta bertaratuko diren euskaldunek. Bertara joango dira Zumarteko zazpi kide ere, lehiaketa publiko batera proposamena aurkeztu eta onartua izan ostean: Xabier Tapia (eskusoinu handia), Garbiñe Latienda (gitarra, ahotsa eta panderoa), Iker Muruguruza (bateria), Juan Tapia (trikitia), Aitor Bautista, Araitz Larrea eta Roman Manterola (txistulariak).**

Rosarion kokatzen den "Zazpirak bat" Euskal Etxea da urriko jaialdiko antolatzailea. Iker Muguruzaren esanetan, "bertako euskaldunentzat Euskal Aste Nazionala urteko egunik garrantzitsuenak dira". Zumarteko kideek hiru emanaldi eskainiko dituzte bertan egongo diren bost egunetan. "Bidaia gogorra da, baina merezi du. Ilusio izugarria dugu", adierazi du Muguruzak.

### Mendeurrenaren atarian

"Gure arimaren oihua". Hitz horiek eta esku batek heldutako ikurriña ageri den marrazkiarekin iragartzen ari da "Zazpirak bat" Euskal Etxea urria hasieran ospatuko den Euskal Aste Nazionala.

Erakusketek, musikak, dantzak, hitzaldiek… mota guztietako ekitaldiek lekua izango dute Rosarion. Pasa den uztaila amaieran 95 urte bete zituen aurtengo jaia antolatuko duen euskal etxeak. Jatorri euskalduneko herritar gehien mugitzen duen euskal etxeetako bat da. Duela bost urte ere bertan ospatu zen jaialdia.



Duela bost urte, Rosarion ospatu zen Euskal Aste Nazioanala.

# Asteburu honetan hasiko da Endika Abril Errebote Txapelketa

Endika Abril Txapelketan partehartzen duten taldeek dirulaguntzak jasoko dituzte aurten. Gipuzkoako Euskal Pilota Elkarteak babesle berriak erakarri nahi ditu, sariak hobetu, dietak banatu eta txapelketa erakargarriagoa bilakatu asmoz.

Aurten, dirulaguntzak banatuko dituzte Endika Abril Txapelketan partehartzen duten taldeen artean. Dirulaguntza hauek desplazamendu dieta bidez banatuko dira. Talde bakoitzari 60 euro emango zaizkio; jokatzen duen partida bakoitzean jasoko du diru hori.

Txapelketa asteburu honetan hasiko da eta Villabona, Oiartzun eta Zubietako plazetan jokatuko da.

Araudiaren arabera talde bakoitzak bi epaile aurkeztu beharko ditu partida bakoitzean eta araudia zorrotz beteko da, batez ere, norgehiagoken hasiera ordutegiari dagokionean.



Argazkian, iaz, Zubietan jokatutako partida.

## KzGunea, irailean arratsaldez irekita

Ostiral honetan, irailak 14, "Sinadura elektronikoa" eta "Zure kanala sintonizatu" izeneko ikastaroak eskainiko dira KzGunean; 18:00-19:00 artean eta 19:00-20:00 artean, hurrenez hurren.

Hilaren 19an, "Zure seme-alaba babestu" eta "Aseguru bat kontratatu" ikastaroak eskainiko dira ordutegi berean.

Oinarrizko Internet ikastaroa ere egunero eskainiko da. Irailaren 17an hasi eta 28ra arte, Internet-i buruzko oinarrizko ezagupenak irakatsiko dira.

Hilabetea bukatu baino lehen, IT Txartela lortzeko bi azterketa egingo dira: irailaren 18an, asteartea, edota hilaren 27an, osteguna. Bi azterketak arratsaldeko 18:00etan hasiko dira.

KzGunea: 943 36 14 12.

# Santuenea, jaiak noiz hasiko zain

**Txerri harrapaketa, globo gerra edota argazki proiekzioa nobedadeen artean. Auzotarrentzat bereziki, baina era berean herritar ororentzat. Irailaren 21etik 23ra, asteburu bete ekitaldi, adin eta gustu guztiak asebetetzeko. Badatoz, Santueneako jaiak.**



IAZ, SANTUENEKO JAIETAN ATERATAKO IRUDIA. AURTEN, TXERRI HARRAPAKETA ANTOLATU DUTE.

“Dena lotuta, hasteko prest”. Hala dago Ibai-Ondo elkarteko eta Emakumeen taldeko kideek osatzen duten Santueneako Jai Batzordea. Material eskaerei lotutako azken ukituak baino ez zaizkie geratzen, jaiak hasteko astebete falta den honetan. Ez dute hutsik egingo Dj Larraren eta herriko musika talde gazteen emanaldiek, ezta Josune Aranbururekin izango den kantu afariak ere. Haurrek larunbata izango dute haien egun nagusia, puzgarri, joko eta zezen mekanikoarekin. Jan edan nahikoa izango da txokolatada edo piper dastatzearekin.

## Txerrien atzetik segika

Aurten, aldiz, ez da zezenik ezta pottokarik izango. “Zezenak ekartzen saiatu gara, baina geroz eta arazo gehiago daude seguruak egiteko”, adierazi du Jai Batzordeko kide Moises Andresek. Errekortadoreak ere ekartzekotan izan ziren, baina auzoko plazak dituen ezaugarriak kontuan hartuta, asmoa bertan behera utzi zuten.

Hala ere, ordezkorik bilatu diote antolatzaileek. Auzoko jaietan urte askotan ospatzen zen ohitura berreskuratu dute, oraingoan, ordea, egunez gauzatuko dena; txerri harrapaketa. Bi pertsonak hanketatik sokaz elkarri lotuta plazan zehar txerria harrapatzeko ahalegina egin beharko dute. Lortuz gero, ez dira esku hutsik etxeratuko. “Txerria harrapatzen duenak beretzat etxerako, nahi badu”, aipatu du Andresek. Lau txerri izango dira guztira; bi hamasei urtetik beherakoek parte har dezaten eta beste biak helduentzat.

Ez da, ordea, animaliekin loturiko ekitaldi bakarra izango. Etxetxoren eskutik, zaldi proba izango baita. “Aurten, asmoa, zaldia astoaren aurka lehian ikustea da”, iragarri du Santueneakoak. Beraz, desafiorik ez da faltako Santuenean.

> **MOISES ANDRES**
>
> “Festak ez dira auzokideentzat bakarrik, herri osoarentzat baizik”

## Herritarrei bertaratzeko deia

Auzoko jaiek izan zuten etenaldiaren ostean, duela lauzpabost urtetik lanean gogor dabiltza antolatzaileak. Berriro ere festak berpiztu dituzte eta baita auzo giroa ere. “Urte politak dira hauek. Oso gustura gaude, jendeak nahi baino gutxiago parte hartu arren”, adierazi du Andresek.

Hain zuzen, uda hasieran biltzen hasten direnetik jaiak amaitzen diren unera arte, adin eta gustu guztietako ekitaldiak prestatzen dihardute. Guztia, Andresen esanetan, “jendeak ondo pasa eta parte har dezan”.

Hori esanda, auzoko mugetatik kanpora begira jartzen dira. Santueneako jaiak auzoko jaiak dira, auzotarrentzat, baina baita gainerakoentzat ere. Alde horretatik, deialdi berezia egiten dute, haur jokoetara edota herri bazkarira etor daitezen. “Ez dira auzokideentzat bakarrik, herri osoarentzat baizik”, azpimarratu du Andresek.

Aurtengo festak hasi eta gutxira nostalgiarako tarte bat hartuko dute. Aurreko urteetako jaietan atera diren argazkien proiekzioa eskainiko baita. Ekitaldia antolatzen duten lehen urtea da, eta datozenei begira, osatzen joan nahi lukete argazki artxiboa.

Antolatzaileek jaiei merezitako amaiera emateko apustua egin zuten iaz. Astebete barru hasiko diren festetan ere horri eutsi nahi diote. Nahi baino motzagoa dela dioten arren, traka berezia izango da. “Festei bukaera ona emango diegu, kolore pixka batekin”, iragarri du Andresek.

## Tiketak salgai

Irailaren 23ko bazkaria etxean ez, auzokideekin egingo du batek baino gehiagok. Haien aukera herri bazkarira joatea izango baita. Gauza bera gertatutako da bezperako kantu afariarekin ere. Dagoeneko txartelak salgai dira 20 eurotan: Merke tabernan, zahar egoitzan eta Ibai-Ondo elkartean. Sarrera eskuratzeko azken eguna, irailaren 20a izango da.

# Ekitaldiz betetako jai-egunak

**Irailak 21, ostirala**
**17:00** Txupinazoa eta txokolatada (Merke tabernaren aurrean). Ondoren, globo-gerra.
**18:30** Buruhandiak.



**19:00** Sardina jana txarangarekin.
**20:30** Auzoko jaietako argazki proiekzioa Santuenea Elkartean.
**00:00** Kontzertuak: Gaueko Itzala, Epok, Odolaren Mintzoa.

**Irailak 22, larunbata**
**10:30** Oria ibaian piraguak.
**12:00-14:00** Haur jokoak eta rokodromoa, tirolina, zezen mekanikoa, puzgarriak…
**14:00** Haur bazkaria (bakoitzak bere bazkaria ekarri. Edaria eta postrea banatuko dira).
**16:00** Mus txapelketa.
Izen-ematea: 15:30-16:00.
**16:00-19:00** Haur jolasak (tirolina, zezen mekanikoa, puzgarriak…).
**17:30** Txokolatada (jubilatu tabernaren aurrean).
**19:00** Buruhandiak.
**20:30** Larra DJ.
**21:30** Kantu afaria: Josuneren gitarrarekin.
**00:00** Berriro Larra DJ.

**Irailak 23, igandea**
**11:30** Herriko dantzariak plazan. Ondoren, hamaiketakoa (jubilatuen tabernaren aurrean).
**12:00** Toka.
**13:00** Zaldi proba plazan.
**14:00** Herri bazkaria. Ondoren, txaranga.
**17:30** Txerrien harrapaketa Plazan. Ondoren, Mariatxiak.
**19:00** Buruhandiak.
**19:30** Piper dastatzea.
**21:00** Traka.

**Antolatzailea:** Santueneako Jai Batzordea.

# Antzerki Tailerreko saioak, Santuenea Elkartean

**Hirugarren urtez abian jarriko da Usurbilgo Antzerki Tailerra. Nobedadeekin dator 7 eta 13 urte arteko gaztetxoei arte eszenikoen inguruan lehen pausoak ematen laguntzen dien ekimena. Udazkenetik aurrera, irakasle lanetan aurpegi berri bat izango da; Alex Tello usurbildarra. Horrekin batera, entseguak egiteko egoitzaz ere aldatuko dira. Orain arte, Bake Epaitegi atzeko lokalean jarduten zuten; hemendik aurrera, Santuenea elkartean bilduko dira ostiral arratsaldeko 17:00etan.**

Dagoeneko entsegu saioen egunak zehaztu dituzte; urriaren 5, 19 eta 26an; azaroaren 5, 12, 16, 23 eta 30ean eta abenduaren 14an. Irailaren 27ra arte zabalik dago izena emateko epea, honako telefono zenbakietan: 943 371 535 edo 943 365 031. Prezioa: 20 euro.



IAZ, ANTZERKI TAILERRA SUTEGIN ELKARTZEN ZEN. AURTEN, SANTUENEA ELKARTEAN BILDUKO DIRA ETA IRAKASLEA ALEX TELLO IZANGO DA.

### Urritik ikastaroak abian

Yoga, dantza, pintura tailerra eta jostura tailerra dira ikasturte berri honetan Santuenea Elkarteak eskainiko dituen ikastaroak. Urrian hasiko dira.

Aurten lehen aldiz izena emateko asmoa duenak honako telefono zenbakietara hots egin besterik ez du; 943 371 535 edo 943 365 031.

# Errauste-plantaren aurkakoak nagusi dira orain San Markosko mankomunitatean

**Errauste plantaren aurka daudenak nagusitu ziren San Markosko mankomunitatearen zuzendaritza berria osatzeko lehengo astean egin zen batzarrean. Akordio horri esker, Ezker Batuako hautagai Ricardo Ortega izango da mankomunitateko lehendakari berria, eta Imanol Azpiroz zubietarra, EAE-ANVko zinegotzia Usurbilen, lehendakariorde. Bata zein bestea, Errauste Planten Aurkako Plataformako kideak dira.**




San Markosko Mankomunitateko ordezkari berriak: Imanol Azpiroz eta Ricardo Ortega, hurrenez hurren.

Zabor politika alternatiboak landu eta errauste plantaren aldeko dinamika aldatzea. Horiek dira San Markosko kargu berrien helburu nagusiak. Aurreko astean egin zen batzarrean, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergora San Markosen izenean joango diren hiru ordezkariak ere hautatu zituzten. ANVk, EBk eta PSE-EEk ordezkari bana izango dute Partzuergoan.

Hiri hondakinen gaiak bideratzeko sortu zen Partzuergoa. Eta hauek dira Partzuergoak biltzen dituen erakundeak: Foru Aldundia, San Markosko mankomunitatea eta Gipuzkoako gainontzeko mankomunitateak.

Partzuergoan hartuko diren erabakietan, San Markosek botoen %32a izango du. Gipuzkoako gainontzeko mankomunitateek, %35a. Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldiz, %33a.

Aipatzekoa da gainontzeko mankomunitateetan egon daitekeela errausteare aurkakorik, Debagoienekoa hain zuzen (zuzendaritza berria oraindik osatzeke dagoen arren).

Mankomunitateena bezalaxe, Gipuzkoako Foru Aldundiaren papera ere funtsezkoa izango da Partzuergoak hartu beharreko erabakietan. Bada datu esanguratsu bat: Markel Olano diputatu nagusiak mankomunitateen hitza errespetatuko zuela agindu zuen.

Gauzak horrela, ikusi beharko da zer nolako bidea hartzen duen hiri hondakinen eztabaidak. Esanguratsuak izango dira datozen hilabeteak.

## Erraustearen aurkako giza-katea Donostian

Errauste Planten Aurkako Plataformak giza-katea egin zuen Kontxako banderaren azken igandean. “Alternatiben garapenaren alde, errausketari ez, ez Zubietan ez inon” lemapean, errauste planta eraikitzearen aurkako jarrera agertu zuten Kontxako hondartzan bildu ziren. Herritarren parte-hartzea sustatzearen eta hiri hondakin gutxiago sortzeko neurrien alde agertu ziren.

## Xabier Mikel Errekondo eta Imanol Azpiroz izango dira Usurbilgo ordezkariak San Markosen

Irailaren 5ean osatu zen San Markosko mankomunitateko zuzendaritza berria. Legealdi berrian egingo diren batzarretan Xabier Mikel Errekondo alkatea eta Imanol Azpiroz izango dira Usurbilgo udala ordezkatuko dutenak, biak EAE-ANVkoak.

EB eta EAE-ANV arteko akordioaren ondorioz, Ricardo Ortega Lasarte-Oriako EBko zinegotzia izango da San Markosko lehendakaria. Imanol Azpiroz zubietarra, berriz, lehendakariorde.



Irailaren 5ean izendatu ziren San Markosko kargu berriak.

# Aginagak omenaldi beroa eskaini zien Kontxako bandera irabazi zuten arraunlariei

**Duela 50 urte irabazi zuen Aginagak Kontxako bandera. Balentria hura ondo gogoan dute oraindik Aginagan. Orduko arraunlariek omenaldi beroa jaso zuten aurreko larunbatean. San Praixkuetan gertatu ohi den bezala, jendea erruz bildu zen frontoi inguruan.**



Ekitaldian, orduko pasarteak gogora ekarri zituzten. Arraunlariek oroigarri bana jaso zuten eta baita bertaratu zirenen txaloak ere. Omenaldian bezalaxe, herri bazkarian ere urdin kolorea izan zen nagusi. Izan ere, okasiorako atera dituzten kamisetak arrakasta handia izan dute.




Meza nagusian, Kontxako bi banderak bedeinkatu zituzten. Ondoren, bi zapiak frontoiaren bi alboetan jarri zituzten. Espainiako banderak biak, garai hartan ohikoa zen legez. Dena den, eskenatokiari begiratu eta bertan Espainiako banderak ikustea askorentzat bitxia izan zen.



Antolatzaileek egindako deialdiak arrakasta handia izan zuen. Jende mordoa bildu zen arraunlariei eskaini zitzaien omenaldian. Herri bazkariak ere, sekulako arrakasta izan zuen eta giroa primerakoa izan zen. Kontxako bandera irabazi zuten arraunlariak eta hauen senideak ez ezik, Aginaga osoa izan zen protagonista.







# Hitz-gezidunak

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | * IRUDIAN / Humanismo-aren zale | | Fruitu mota / Gaizki esa-ka aritu | | Ugatz / Sodioa | | Ogi-saski / Larre | | Una, neka |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | Zahagi txikiak / Komaren erdian | | | | | | | | |
| Neurriz apalak / Argindar deskarga | | Intsektu mota / * IRUDIAN | | | | | Barre / Ahuntzaren arra | | | | |
| | | | | | | | | Zakur / Nafarroako herria | | | Dardara |
| Iparre-tarrak / Erregai beltza | | | Emakume gaztea / Euskal fonema | | | | | | Omen / ... egin, goitik ari | | |
| | | | | | | Zoroak / $H_2O$ | | | | | |
| Itsututa / Joan den urtea | | | | | | | | | | Bokala / Ez eme | |
| | | | Lurraldea / Potasioa | | | | | | Argona / Bokala | | |
| Giltza | | | | | Bokal errepikatua | | | Modua | | | |



* Zein da Usurbilgo keramika taldearen izena?

**Soluzioa:** 16. orrialdean.




Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.com




ALIPROX
Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL






# Kirol-ikastaro eskaintza zabala kiroldegian

**Usurbilgo Kirol Patronatuak 2007/2008 ikasturtean izango den Oiardo kiroldegiko kirol eskaintza kaleratu du. Hilaren amaiera bitartean, ikastaro desberdinetan izena emateko aukera izango da.**


Datorren astelehenean zabalduko da izena emateko epea.

Kirol Patronatuaren eskaintzak ez dakar nobedade handiegirik. Aurreko urteetako ikastaroak mantentzen dira, bai aretoko eta bai uretako jardueretan, baina iazkoaren antzera bada berrikuntza bat, Oiardo kiroldegiko erabiltzaileek “Power Dumbell” delakoa egiteko aukera izango baitute datorren ikasturtean.

Gihar tonua hobetzeko, pisu altxaketako taldekako saioak egingo dira ikastaro honetan. Iñaki Yurramendi Kirol Patronatuko teknikariaren esanetan gizonezkoei ere zerbait eskaintzea izan da ikastaro hau jartzearen arrazoietako bat. “Eskaini izan ditugun beste ikastaroetara gizonezko oso gutxi animatzen dira. Hori ikusita taldekako ikastaro hau antolatu dugu. Pesak egiten dira, tonifikazioa landuz, baina musikarekin, erritmo desberdinak erabiliz. Hala ere, gizonezkoez gain emakumeek ere parte hartu dezakete, noski”. Tresneria beheko giharketa gelatik igota goiko gimnasio gelan egingo dira saio hauek eta urriaren 1ean, 20.00etatik aurrera klase bat praktikan ezagutzeko aukera izango dute nahi duten guztiek.

## Aerobik eta pilates

Gainontzeko aretoko jarduerei dagokionez ez dago aldaketa handirik. Mantentze soinketa, 3. adinekoei bideratutako gimnasia, herriko ezinduei bideratutakoa eta fitness pertsonalizatua dira aurtengo ikasturteko eskaintzak. Hauez gain, aerobik eta pilates metodoa egin daiteke. Lehenengoari dagokionez, iaz 42 partaide izan zituen eta aurten talde berri bat sortzeko asmoa dutela dio Iñakik. “Aerobiken betiko taldeak izan dira orain arte. Jende berria sartzeko arazoak izaten dira, aurretik dabiltzanek koreografia edo erritmo desberdinak dakizkitenez hauen martxa eramateko zailtasunak izaten baitira. Horregatik, aurten hasi nahi dutenekin talde berri bat osatu nahi dugu”. Iaz lehen aldiz eskaini zuten pilates metodoak, berriz, arrakasta izan zuen pasa den ikasturtean; 36 partaide izan zituen.

Herritarrek beste jarduera batzuk ere eskatu izan dituzte, eta “spinninga” da horietako bat. Azken urteetan modan jarri da bizikleta estatikoarekin egiten den kirol hau. Baina Oiardo kiroldegian ikastaro hau egitea behintzat ezinezkoa da oraindik. “Herritar askok eskatzen dute- dio Iñakik - baina zerbitzu hau aurrera eramateko lekurik ez dugu, ez materiala gordetzeko, ezta jarduera bera aurrera eramateko lekurik ere”.

## Ur ludoteka gaztetxoentzat

Uretako jarduerei dagokionez, arrakasta erabatekoa da. Aurtengo ikasturtean ere 6 hilabetetik 2 urte bitartekoentzako ikastaroa, ur ludoteka, urtera moldatzea, igeriketa eskola, helduentzat igerian ikasteko edo igeriketa modua hobetzeko ikastaroak eta abar eskainiko dira herriko kiroldegian eta haurrei bideratutako jardueretan eskaerei aurre egin ezinik ibiltzen dira. “Asteburuetan ere ikastaroak jarri genituen eta hala ere ezin izan diogu eskaera guztiari aurre egin. Iaz, guztira, adin horretako 352 haurrek egin zuten hilabeteko ikastaroa”. Ur ludotekak ere arrakasta handia du. 111 umek parte hartu zuten denboraldi osoko ikastaroan pasa den ikasturtean eta hemen ere eskaerari aurre egin ezinik ibiltzen dira.

Josu Aranberri

## Denboraldiari ekingo diote futbol taldeek

Usurbil Futbol Taldeak asteburu honetan hasiko du 2007-08 denboraldia. Aurten lau dira lehian izango diren taldeak eta horietako bik etxean jokatuko dute larunbatean. Kadete mailako taldeak San Patricioren aurka jokatuko du 11.30etatik aurrera eta 1. Errejional mailako taldeak Allerru izango du aurrez aurre Harane futbol zelaian. Emakumezkoen taldeak Zestoan izango du hitzordua eta 2. Errejional mailakoak, berriz, Tolosako Usabal futbol zelaian jokatuko du Amaroz taldearen aurka.

## Gipuzkoako elkarteen arteko txapelketa

Herriko pilota elkarteko pilotariek asteburu honetan jokatuko dituzte Gipuzkoako elkarteen arteko txapelketako lehenengo norgehiagokak. Eskuz binakako nagusien mailako hiru bikoteek eta jubeniletako 2. mailakoek jokatuko dute asteburu honetan, baita nagusien gomazko paletan 2. mailan ari den bikoteak ere. Bestalde, Aginagan bertako pilota txapelketa jokatzen ari da. Pasa den asteartean jokatu ziren Hariztitxon final zortzirenetako partidak. Azken partidak, berriz, San Praixkuetan izango dira.

### Eguneko goardiako farmaziak

**Irailak 13, osteguna**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Irailak 14, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

**Irailak 15, larunbata**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

**Irailak 16, igandea**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Irailak 17, astelehena
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

**Irailak 18, asteartea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Irailak 19, asteazkena**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Irailak 20, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Irailak 21, ostirala**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Irailak 22, larunbata**
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

**Irailak 23, igandea**
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

*GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ*
*J. Etxebeste Farmazia*
*Elkano 2 kalea, Hernani 943 55 20 87 (gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)*

2007ko egutegia noaua.com webgunean

## Neguko ordutegia indarrean EuskoTrenen

Zumaia eta Donostia arteko bidaia ordu erdiz behin beteko da jenderik gehieneko orduetan eta, gainerako ordutegian, orduan behin. Tren zerbitzua 05:47ak eta 23:09ak bitartean eskainiko da.

Larunbat, igande eta jaiegunetan Zumaia eta Donostia artean bidaiatzeko eskainiko den maiztasuna ordu betekoa izango da. Larunbat gaueko zerbitzua autobusez beteko da ordu birik behin.

Argibide gehiago nahi duten bezeroek EuskoTreneko 902 5 4 3 2 1 0 telefonora dei dezakete.

Geltoki eta geralekuetan ere informazioa eskura daiteke, hala nola, tren konpainiaren web-orrialdean: www.euskotren.es.

## Soinketa erritmikoa

Soinketa erritmikoak badu taldetxo bat Usurbilen. Jada ekin diote ikasturte berriari.

Astean bitan izaten dira entrenamenduak: asteartetan eta ostegunetan.

LH3 arteko ikasleak ordutegi honekin: 16:45-17:45. LH3tik aurrerako ikasleak ordubete beranduago: 17:45-18:45.

### Soluzioa

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ✪ | B | ✪ | M | ✪ | T | ✪ | O | ✪ |
| | | | H | U | M | A | N | I | S | T | A |
| | | | ✪ | Z | A | H | A | T | O | A | K |
| ✪ | T | ✪ | O | T | I | A | ✪ | I | R | R | I |
| T | X | I | M | I | S | T | A | ✪ | O | R | ✪ |
| ✪ | I | K | ✪ | N | E | S | K | A | ✪ | E | I |
| I | K | A | T | Z | A | ✪ | E | R | O | A | K |
| ✪ | I | T | S | U | T | U | R | I | K | ✪ | A |
| I | A | Z | ✪ | L | U | R | R | A | ✪ | A | R |
| ✪ | K | A | K | O | ✪ | A | A | ✪ | E | R | A |

**Soluzioa:** Buztinzulo

### ORDUTEGIA Tren — DONOSTIA - ZARAUTZ

| Donostia AMARA | Donostia LUGARITZ | Donostia AÑORGA | Donostia ERREKALDE | USURBIL | Orio AIA | Zarautz SAN PELAIO | ZARAUTZ |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 05.47 | 05.50 | 05.52 | 05.55 | 06.03 | 06.14 | 06.19 | 06.20 |
| 06.17 | 06.20 | 06.22 | 06.25 | 06.33 | 06.44 | 06.49 | 06.50 |
| 06.47 | 06.50 | 06.52 | 06.55 | 07.03 | 07.14 | 07.19 | 07.20 |
| 07.17 | 07.20 | 07.22 | 07.25 | 07.33 | 07.44 | 07.49 | 07.50 |
| 07.47 | 07.50 | 07.52 | 07.55 | 08.03 | 08.14 | 08.19 | 08.20 |
| 08.17 | 08.20 | 08.22 | 08.25 | 08.33 | 08.44 | 08.49 | 08.50 |
| 08.47 | 08.50 | 08.52 | 08.55 | 09.03 | 09.14 | 09.19 | 09.20 |
| 09.47 | 09.50 | 09.52 | 09.55 | 10.03 | 10.14 | 10.19 | 10.20 |
| 10.47 | 10.50 | 10.52 | 10.55 | 11.03 | 11.14 | 11.19 | 11.22 |
| 11.47 | 11.50 | 11.52 | 11.55 | 12.03 | 12.14 | 12.19 | 12.20 |
| 12.17 | 12.20 | 12.22 | 12.25 | 12.33 | 12.44 | 12.49 | 12.50 |
| 12.47 | 12.50 | 12.52 | 12.55 | 13.03 | 13.14 | 13.19 | 13.20 |
| 13.17 | 13.20 | 13.22 | 13.25 | 13.33 | 13.44 | 13.49 | 13.50 |
| 13.47 | 13.50 | 13.52 | 13.55 | 14.03 | 14.14 | 14.19 | 14.20 |
| 14.17 | 14.20 | 14.22 | 14.25 | 14.33 | 14.44 | 14.49 | 14.50 |
| 14.47 | 14.50 | 14.52 | 14.55 | 15.03 | 15.14 | 15.19 | 15.20 |
| 15.17 | 15.20 | 15.22 | 15.25 | 15.33 | 15.44 | 15.49 | 15.50 |
| 15.47 | 15.50 | 15.52 | 15.55 | 16.03 | 16.14 | 16.19 | 16.20 |
| 16.17 | 16.20 | 16.22 | 16.25 | 16.33 | 16.44 | 16.49 | 16.50 |
| 16.47 | 16.50 | 16.52 | 16.55 | 17.03 | 17.14 | 17.19 | 17.20 |
| 17.17 | 17.20 | 17.22 | 17.25 | 17.33 | 17.44 | 17.49 | 17.50 |
| 17.47 | 17.50 | 17.52 | 17.55 | 18.03 | 18.14 | 18.19 | 18.20 |
| 18.17 | 18.20 | 18.22 | 18.25 | 18.33 | 18.44 | 18.49 | 18.50 |
| 18.47 | 18.50 | 18.52 | 18.55 | 19.03 | 19.14 | 19.19 | 19.20 |
| 19.17 | 19.20 | 19.22 | 19.25 | 19.33 | 19.44 | 19.49 | 19.50 |
| 19.47 | 19.50 | 19.52 | 19.55 | 20.03 | 20.14 | 20.19 | 20.20 |
| 20.47 | 20.50 | 20.52 | 20.55 | 21.03 | 21.14 | 21.19 | 21.20 |
| 21.47 | 21.50 | 21.52 | 21.55 | 22.03 | 22.14 | 22.19 | 22.20 |

00.00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAIETAN

### ORDUTEGIA Tren — ZARAUTZ-DONOSTIA

| ZARAUTZ | Zarautz SAN PELAIO | Orio AIA | USURBIL | Donostia ERREKALDE | Donostia AÑORGA | Donostia LUGARITZ | Donostia AMARA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 06.08 | 06.09 | 06.15 | 06.24 | 06.30 | 06.33 | 06.36 | 06.39 |
| 06.38 | 06.39 | 06.45 | 06.54 | 07.00 | 07.03 | 07.06 | 07.09 |
| 07.08 | 07.09 | 07.15 | 07.24 | 07.30 | 07.33 | 07.36 | 07.39 |
| 07.38 | 07.39 | 07.45 | 07.54 | 08.00 | 08.03 | 08.06 | 08.09 |
| 08.08 | 08.09 | 08.15 | 08.24 | 08.30 | 08.33 | 08.36 | 08.39 |
| 08.38 | 08.39 | 08.45 | 08.54 | 09.00 | 09.03 | 09.06 | 09.09 |
| 09.08 | 09.09 | 09.15 | 09.24 | 09.30 | 09.33 | 09.36 | 09.39 |
| 10.08 | 10.09 | 10.15 | 10.24 | 10.30 | 10.33 | 10.36 | 10.39 |
| 11.08 | 11.09 | 11.15 | 11.24 | 11.30 | 11.33 | 11.36 | 11.36 |
| 12.08 | 12.09 | 12.15 | 12.24 | 12.30 | 12.33 | 12.36 | 12.39 |
| 12.38 | 12.39 | 12.45 | 12.54 | 13.00 | 13.03 | 13.06 | 13.09 |
| 13.08 | 13.09 | 13.15 | 13.24 | 13.30 | 13.33 | 13.36 | 13.39 |
| 13.38 | 13.39 | 13.45 | 13.54 | 14.00 | 14.03 | 14.06 | 14.09 |
| 14.08 | 14.09 | 14.15 | 14.24 | 14.30 | 14.33 | 14.36 | 14.39 |
| 14.38 | 14.39 | 14.45 | 14.54 | 15.00 | 15.03 | 15.06 | 15.09 |
| 15.08 | 15.09 | 15.15 | 15.24 | 15.30 | 15.33 | 15.36 | 15.39 |
| 15.38 | 15.39 | 15.45 | 15.54 | 16.00 | 16.03 | 16.06 | 16.09 |
| 16.08 | 16.09 | 16.15 | 16.24 | 16.30 | 16.33 | 16.36 | 16.39 |
| 16.38 | 16.39 | 16.45 | 16.54 | 17.00 | 17.03 | 17.06 | 17.09 |
| 17.08 | 17.09 | 17.15 | 17.24 | 17.30 | 17.33 | 17.36 | 17.39 |
| 17.38 | 17.39 | 17.45 | 17.54 | 18.00 | 18.03 | 18.06 | 18.09 |
| 18.08 | 18.09 | 18.15 | 18.24 | 18.30 | 18.33 | 18.36 | 18.39 |
| 18.38 | 18.39 | 18.45 | 18.54 | 19.00 | 19.03 | 19.06 | 19.09 |
| 19.08 | 19.09 | 19.15 | 19.24 | 19.30 | 19.33 | 19.36 | 19.39 |
| 19.38 | 19.39 | 19.45 | 19.54 | 20.00 | 20.03 | 20.06 | 20.09 |
| 20.08 | 20.09 | 20.15 | 20.24 | 20.30 | 20.33 | 20.36 | 20.39 |
| 21.08 | 21.09 | 21.15 | 21.24 | 21.30 | 21.33 | 21.36 | 21.39 |
| 22.08 | 22.09 | 22.15 | 22.24 | 24.30 | 22.33 | 22.36 | 22.39 |
| 22.40 | 22.41 | 22.47 | 22.56 | 23.00 | 23.03 | 23.06 | 23.09 |

00.00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAIETAN

Bezeroen arretarako bulegoa www.euskotren.es • attcliente@euskotren.es ✆ 902 54 32 10

## Agenda !!

**Irailak 18, asteartea**
"Diabetes kasuan izan beharreko ardura", Xabier Susperregiren hitzaldia 18:00etan Sutegin.

**Irailak 19, asteazkena**
"Arnasten ikasiz, bizia luzatuko dugu", Xabier Susperregiren hitzaldia 18:00etan Sutegin.

**Irailak 21 / Irailak 23**
Santueneko festak.

**Irailak 26, asteazkena**
UEMAri buruzko hitzaldia, 19:30ean Sutegin. Antolatzailea: Aitzaga elkartea.

**Irailak 28, ostirala**
"Gu ta gutarrak", bertso ikuskizuna, 22:30ean Sutegin. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

# 40 urte eta gero, berriz ere, "Isturitzetik Tolosan barru"



Duela 40 urte bide berriak jorratzen hasi ziren, literaturan, artean, musikan, dantzan, antzerkian, zinean… Agian, inoiz ez bezalako eran, sustraituak bezainbat irekiak, garaikide eta, maiz, are abangoardian.

Joxanton Artzeren "Isturitzetik Tolosan barru" ez-ohiko poesia liburua testuinguru hartan kokatzen da. Bertan, gai berriak, maiz beligeranteak, irudi berri eta esanguratsuez hondutako poemak -poesia espaziala-, joko eta artez beteak, kolore eta tipografia desberdinez taxutuak, erantsitako diskoan ahots eta doinuz osatuak... Literatur balioaz gain, esperimentazio eta abangoardiako artelana zen. Mugarri bat gure literaturgintzan… eta diseinuan.

Bertako poemei dagokienez, asko dira musikatu, kantatu eta sozializatu izan direnak; batzuk ("Txoria txori", adibidez) erabat erreferentzial bilakatzeraino.

Ia 40 urte pasa dira. Aspaldi agortua izateaz gain, letren historia eta paisaiatik desagertua da, ezagutu ere ez da ezagutzen... Hori da faksimile eran egiten den berrargitalpenaren arrazoia: ezagutzera ematearekin batera gure letretan daukan tokia aitortzea.

Arteolaren ekoizpena da (littera&musika bilduman), Pamielak argitaratua: Liburua+CDa, 144 orrialde, 20 euro.

ORDUTEGIA Autobus Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

DONOSTIA - ZARAUTZ / ZARAUTZ-DONOSTIA

| DONOSTIA | URBIL | USURBIL | ZARAUTZ | ZARAUTZ | USURBIL | URBIL | DONOSTIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 07.40 | >> | 08.05 | 08.25 | 06.45 | 07.05 | >> | 07.30 |
| 08.10 | >> | 08.35 | | 07.15 | 07.35 | >> | 08.00 |
| 08.40 | >> | 09.05 | 09.25 | 07.45 | 08.05 | >> | 08.30 |
| 09.10 | 09.30 | 09.35 | | 08.15 | 08.35 | >> | 09.00 |
| 09.40 | >> | 10.05 | 10.25 | 08.45 | 09.05 | >> | 09.30 |
| 10.40 | >> | 11.05 | 11.25 | | 09.40 | 09.45 | 10.10 |
| 11.40 | >> | 12.05 | 12.25 | 09.45 | 10.05 | >> | 10.30 |
| 12.10 | 12.30 | 12.35 | | | 10.40 | 10.45 | 11.10 |
| 12.40 | >> | 13.05 | 13.25 | 10.45 | 11.05 | >> | 11.30 |
| 13.10 | 13.30 | 13.35 | | 11.45 | 12.05 | >> | 12.30 |
| 13.40 | >> | 14.05 | 14.25 | 12.45 | 13.05 | >> | 13.30 |
| 14.10 | 14.30 | 14.35 | | | 13.40 | 13.45 | 14.10 |
| 14.40 | >> | 15.05 | 15.25 | 13.45 | 14.05 | >> | 14.30 |
| 15.10 | 15.30 | 15.35 | | | 14.40 | 14.45 | 15.10 |
| 15.40 | >> | 16.05 | 16.25 | 14.45 | 15.05 | >> | 15.30 |
| 16.40 | >> | 17.05 | 17.25 | | 15.40 | 15.45 | 16.10 |
| 17.40 | >> | 18.05 | 18.25 | 15.45 | 16.05 | >> | 16.30 |
| 18.10 | 18.30 | 18.35 | | | 16.40 | 16.45 | 17.10 |
| 18.40 | >> | 19.05 | 19.25 | 16.45 | 17.05 | >> | 17.30 |
| 19.10 | 19.30 | 19.35 | | 17.45 | 18.05 | >> | 18.30 |
| 19.40 | >> | 20.05 | 20.25 | 18.45 | 19.05 | >> | 19.30 |
| 20.15 | 20.35 | 20.40 | 21.00 | | 19.40 | 19.45 | 20.10 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.45 | 19.45 | 20.05 | >> | 20.30 |
| 22.15 | 22.35 | 22.40 | 23.05 | 20.45 | 21.05 | 21.10 | 21.30 |
| | | | | 21.15 | 21.35 | 21.40 | 22.00 |

00.00 Aiara jarraitzen du. 00.00 Aiatik dator

ORDUTEGIA Autobus Larunbat, Igande eta JAIEGUNETAN

DONOSTIA - ZARAUTZ / ZARAUTZ-DONOSTIA

| DONOSTIA | URBIL | USURBIL | ZARAUTZ | ZARAUTZ | USURBIL | URBIL | DONOSTIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 08.00 | 08.20 | 08.25 | 08.45 | 06.45 | 07.05 | 07.10 | 07.30 |
| 09.00 | 09.20 | 09.25 | 09.45 | 07.45 | 08.05 | 08.15 | 08.40 |
| 10.00 | 10.20 | 10.25 | 10.45 | 08.45 | 09.05 | 09.15 | 09.40 |
| 11.00 | 11.20 | 11.25 | 11.45 | 09.45 | 10.05 | 10.15 | 10.40 |
| 12.00 | 12.20 | 12.25 | 12.45 | 10.45 | 11.05 | 11.15 | 11.40 |
| 13.00 | 13.20 | 13.25 | 13.45 | 11.45 | 12.05 | 12.15 | 12.40 |
| 14.00 | 14.20 | 14.25 | 14.45 | 12.45 | 13.05 | 13.15 | 13.40 |
| 15.00 | 15.20 | 15.25 | 15.45 | 13.45 | 14.05 | 14.15 | 14.40 |
| 16.00 | 16.20 | 16.25 | 16.45 | 14.45 | 15.05 | 15.15 | 15.40 |
| 17.00 | 17.20 | 17.25 | 17.45 | 15.45 | 16.05 | 16.15 | 16.40 |
| 18.00 | 18.20 | 18.25 | 18.45 | 16.45 | 17.05 | 17.15 | 17.40 |
| 19.00 | 19.20 | 19.25 | 19.45 | 17.45 | 18.05 | 18.15 | 18.40 |
| 20.00 | 20.20 | 20.25 | 20.45 | 18.45 | 19.05 | 19.15 | 19.40 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.45 | 19.45 | 20.05 | 20.15 | 20.40 |
| 22.00 | 22.20 | 22.25 | 22.45 | 20.45 | 21.05 | 21.15 | 21.30 |
| 22.30 | 22.50 | 22.55 | 23.15 | 21.45 | 21.05 | 21.15 | 21.40 |
| NEGUKO LARUNBAT GAUETAN | | | | | | | |
| 00.00 | >> | 00.25 | 00.45 | 23.15 | 23.35 | >> | 00.00 |
| 02.00 | >> | 02.25 | 02.45 | 01.15 | 01.35 | >> | 02.00 |
| 04.00 | >> | 04.25 | 04.45 | 03.15 | 03.35 | >> | 04.00 |
| 06.00 | >> | 06.25 | 06.45 | 05.15 | 05.35 | >> | 06.00 |

00.00 Larunbat laneguneetan bakarrik.

Bezeroen arretarako bulegoa www.euskotren.es • attcliente@euskotren.es ✆ 902 54 32 10

### ETXEBIZITZA

- Pisua alokatu nahiko genuke. Ama-alaba gara. Alokatzeko pisurik baduzu dei iezaguzu: 616 59 11 99.
- Etxe bat salgai Nagusia kalean, 90 metro karratu, 3 logela, 2 komun, egongela handia, sukaldea, 9 metro karratuko ganbara, dena amueblatuta. 55.000.000pta. 625 702 539.
- Usurbilen pisu bat alokatu nahi dut. Presazkoa da. 627285904.
- Bizkarre kalean pisua salgai: 2 komun, sukaldea, sala, 3 gela, ganbara eta garajea. 48.000.000 pta. 650 938 489.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroarekin. Garajea aukeran. 685731792

-Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. 687 650 066 (Maria).

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, “extra” asko.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaintzak

- Emakume euskalduna behar da Orion, tren geltoki ondoan etxea garbitu eta haurrak zaintzeko. 615 723 755.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.

-Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.

- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 362713.

-Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. 943366710.

#### Lan-eskaerak

- Emakume euskaldun bat eskaintzen da, egunero lauzpabost ordu lan egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 687348223.
- Fisikako ikaslea, uda honetan matematika eta fisikako klaseak emateko prest. 943 37 12 77 / 685 772 602 (Nerea).
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906

-Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.

- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.

-Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Txakur-kumeak oparitzen ditugu, hiru hilabetekoak. 943 36 33 06.
- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Auñamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.

-Benelli repetidora salgai 600 euro. 645 735750.

- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birikariak, dena hornitua, ASR... 610 431 999.

-Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.

-5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

-Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere: 664 774 024.

- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net



**Zorionak Enara!**
Irailaren 17an 6 urte beteko ditu etxeko pospolinak. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez!



**Zorionak Unax!**
Irailaren 11n bost urte egin zenituen. Zorionak eta muxu handi bat, Oihan, June, Anje eta Aratzen partez!



**Zorionak Oihan!**
Dagoeneko hiru urte, muxu handi bat, Unax, June, Anje eta Aratzen partez!

### HILDAKOAK



**Juana Balda Goikoetxea**
Irailaren 7an hil zen, 91 urte zituela.
Kaleberri

## ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Asko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

## Bazkide egin zaitez!

36 euro urte osorako

Izena: ______
1.Abizena: ______
2.Abizena: ______
Helbidea: ______
Herria: ______
Telefonoa: ______
E-posta: ______
Kontu korrontea: ______

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Euskal Herriko

# onddoen gida liburua

doan!

Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik, Euskal Herriko 110 perretxiko ezagunenen zerrenda ekarri dugu liburu honetan. Perretxikozaleentzat gida ezin hobea: perretxiku bakoitzaren ezaugarriak, nola bildu, gordetzeko teknikak, intoxikazio arriskuak...




## Euskal Herri osoko 110 perretxiko ezagunenak

- 110 perretxikoak banan-banan: ezaugarriak, habitata eta jangarritasun maila
- Perretxikoen mundura bidaia
- Perretxikoak egoki biltzeko azalpenak
- Intoxikazioen aurrean zer egin
- Perretxikoak kontserbatzeko metodoak

## Nola eskuratu liburua?

1.- **ZURE KARTILLA ESKURATU**
***Irailaren 8an***, *larunbata*, BERRIArekin

2.- **Kupoiak itsatsi**
Irailaren 8tik aurrera, egunero kupoiak argitaratuko dira BERRIAn, guztira 14.

3.- Kartilla osatutakoan, kioskora eraman eta *DOAN* jasoko duzu liburua




**Irailak 8**, *larunbata*

**kartilla + 1. kupoia berria**rekin



Babeslea: kutxa

Egilea: ARANZADI

Aukera ezazu, bizi euskaraz
**berria**

**JOSE AZPURUA UNANUE**
TELATUAK • FATXADAK

**URDAINTZI S.L.**
igeltseritza
943 367 264
649 435 475
649 435 476

**Errazkin S.L.**
igeltseritza orokorra
943 372 679
649 435 470
Kale nagusia 47, behea A

**Josue Aranzazistroki**
943 360 550
606 372 105

**XUKIN**
igeltseritza orokorra
663 087 671
Erreka Txiki 6. 1B

**Antonio Urruzola**
Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Asteasuain Industrialdea 3

**BEREZIARTUA S.L.**
egurra eta egur-aluminiozko leihoak – eskailerak
Aginaga 943 371 571

**BARRENETXE**
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barren Etxe Kalea
ZUBIETA

**Josetxo Ikatzeta**
687 951 225

**Lataillade**
gasa, berogintza
klimatizazioak eta mantenimendua
609 888 021

**portularrume**
Bainuko altzairuak
Manparak
943 364 637

**JOSEBA ARANGUREN**
943 830 072
659 883 912

**Javier Orbegozo**
Gasa-berokuntza
659 602 789
Erreka txiki 13, 3esk

**FERNANDO PINTURAK**
enpapelaketak
lurzoruak...
943 366 014

**IZAGIRRE**
943 365 095
609 068 111
Goiz Argi Etxea 37
KALEZAR

**ARGILAN**
Jose Luis Borda Zugasti
industria instalazioak konponketak
943 361 380
629 272 859
Borda berri 5 behea

# ofizioen gida

IGELTSERITZA
AROZTEGIAK
ITURGINTZA
PINTURAK
ELEKTRIZITATEA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaua.com